

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

1176

AGINDUA, 2012ko otsailaren 29koa, Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuak uhin metrikoren bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoaren deia egiten duena.

Frekuentzia-modulazioko uhin metrikotako irratidifusio soinudunaren plan tekniko nazionala onartzen duen irailaren 1eko 964/2006 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoak eman beharreko 34 maiztasun planifikatu zituen.

Irrati eta telebistari buruzko araubidea arau-testu bakar batean eguneratzea beharrezkoa zenez, bai eta Euskadiko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren sektoreak dituen behar bereziei egokitzea ere, Jaurlearitzaren Kontseiluak Ikus-entzunezko komunikaziolari buruzko 231/2011 Dekretua onartu zuen, azaroaren 8an egindako bileran (2011ko azaroaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua).

Aipaturiko dekretu horren 8.1 artikulua dioenez, oinarriak onartu eta hilabeteko epean lizentziak esleitzeko lehiaketa publiko baten deialdia egin behar da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Kulturako sailburuaren agindu baten bitartez.

Jaurlearitzaren Kontseiluak, 2012ko otsailaren 28an egindako bileran, Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuak uhin metrikoren bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoaren oinarriak onartu zituen.

Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 15. artikulua araberak eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen martxoaren 22ko 45/2011 Dekretuaren 3. artikulua babesean, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun modulatuak uhin metrikoren bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoaren deia egitea.

Bigarrena.— 30 egun naturaleko epea irekitzea, dealdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, proposamenak aurkezteko.

Hirugarrena.— Interesdunen eskura jartzea aipatutako oinarriak eta beraien eranskinak, bai eta lehiaketari buruzko informazio guztia ere, Kultura Sailaren webgunean (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-kghz/es>) eta Kultura Sailaren Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren bulegoetan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz). Lehiaketari buruzko kontsultak posta elektronikoz (medios-irratia@ej-gv.es) egin ahal izango dira.

Laugarrena.— Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107.1 artikulua, eta 116.1 eta 117.1 artikulua), edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontatuta (Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 eta 46.1 artikulua).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 29a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.